

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Pazienteen Eskolak gaixotasun kronikoei, baskularrei eta Alzheimer-ari buruzko 10 tailer eskaintzen ditu maiatz eta ekainerako

*Pazienteentzat eta haien senideentzat, arratsalde izango dira Altsasu, Elizondo, Lizarra, Larraintzar, Iruña, Erronkari, Zangoza, Tafalla eta Tuteran*

Lunes, 27 de abril de 2015

Pazienteen Eskolak maiatz eta ekainerako gaixotasun kronikoei, baskularrei eta Alzheimer-ari buruzko 10 tailer antolatu ditu. Pazienteentzat eta haien senideentzat dira, beren osasun eta ongizatea hobetzeko asmoz.

Tailer bakoitzak 10-15 parte-hartzaile ditu, eta arratsalde izango dira hainbat udalerritan egingo diren saioetan. Zehazki, "Alzheimer-a edo beste demenzia batzuk dituzten pazienteen zaintzaileentzako tailerra" Iruña, Tuteran eta Lizarran egingo da; "Gaixotasun kronikoei aurre egiteko tailerra", Iruña, Tafalla eta Erronkarin; "Elikadura osasungarriaren tailerra gaitz kronikoetan", Altsasun eta Larraintzarren; eta "Gaixotasun baskular batekin bizitzea" izeneko tailerra (infartua, bularraldeko angina, diabetesa, iktus arinak...), Zangozan eta Elizondon.

[Data-egutegia](#), iraupena eta tailer bakoitza non egingo den, bai eta haien buruzko informazio guztia eta izena emateko formularioa ere, ondorengo webgunean aurkitu daiteke: [www.escueladepacientes.navarra.es](http://www.escueladepacientes.navarra.es). Telefonoz ere eska daiteke 848 42 19 54 telefono-zenbakira dei eginez, 08:00etatik 15:00etara, edo mezu elektronikoa bidaliz honako helbide honetara: [escueladepacientes@navarra.es](mailto:escueladepacientes@navarra.es).

Saioak Pazienteen Eskolarekin lankidetzan ari den irakasle-talde batek emango ditu, osasuneko 9 profesionalek osatuta (7 erizaintzakoak,



Pazienteen Eskolako kartela.

eta 2 gizarte-lanekoak), bai eta adituak diren 9 pazienteek ere, haiek guztiak horretarako bereziki prestatuta daudenak. Lan-metodologiaren barnean sartzen dira: hitzaldiak, eztabaidak, kasuen azterketak, ariketak, esperientziak partekatzea..., talde txikietan nahiz gela osoarekin.

### **Nafarroako Pazienteen Eskola**

Tailerrak Nafarroako Pazienteen Eskolako jardueretako bat dira, [iragan martxoan abian jarritakoa](#), eta haren helburu nagusia gaixotasun kronikoak dituzten, eta haien senide zein zaintzaileen osasuna nahiz ongizatea hobetzea da. Gaitz kroniko bat diagnostikatzen denean sortzen diren beharrak jorratu nahi dira eta, horretarako, zenbait alderdi hartzen ditu, adibidez: patologiar buruzko informazioa, autozaintzarako eta farmaziako tratamendurako trebetasunak garatzea, bai eta diagnostikoaren aurrean sortutako emozioak erabiltzen jakitea ere.

Hala, prestakuntzako ekintza batzuk eskaintzen ditu: orain jarriko diren antzeko tailerrak, ikastaroak, edo mintegiak, aurrez aurrekoak nahiz on-line bidezkoak, eta 1988. urtetik osasun-zentro publikoetan (osasun-zentroetan, bereziki) egiten diren ekintzak osatzen dituzte. Pazienteen eskola Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Osasuna Sustatzeko Atalak koordinatzen du, eta pazienteen nahiz lehen-mailako arretako elkarteen lankidetzatza du.